



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

71/2006 EBAZPENA, UZTAILAREN 26-KOA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN LEHENDAKARIARENA, AUDITORE ATXIKITU ETA LETRATU LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEKO EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIAN LIZENTZIATUTAKO AUDITOREEN ETA ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUTAKOEN LAN POLTSAK SORTZEKO HAUTAKETA PROZESUA DEITZEN DUENA.

HKEE honetan aurrerantzean sor daitezkeen langileen aldi baterako beharriari aurre egitearren, ebazpen honen bitartez aldi bateko izaeradun zerbitzuak emateko lan poltsak osatzera zuzendutako prozesuaren deialdia bideratu da.

HKEEren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 19.1.f artikulua agintzen duenaren indarrez.

EBATZI DUT

Lehenengo.- Hautaketa prozesua deitu, goi mailako titulatuak aldi bateko zerbitzua emateko lan poltsak sortzeko dena, bata Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Lizentziatutako lan poltsa, auditore atxikituen lanpostuak aldi baterako betetzeko eta bestea, Zuzenbidean lizentziatutako lan poltsa sortzeko, Letratu postuak betetzeko.

Bigarren.- Auditoreen lan poltsarako Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea:

Lehendakaria: Begoña López Errasti and.
Ordezkarria: Gonzalo Vera-Fajardo Belinchón jn.

Bokala: Ana Mahave Olarte and.
Ordezkarria. M^a Cruz Santamaría Martín and.

Bokala. M^a Eugenia Zugaza Salazar and.
Ordezkarria: Miguel Angel Astiz López de Letona jn.

Idazkarria: Arantza Martínez de Lagrán Larrauri and.

Letratuen lan poltsarako:

Lehendakaria: Gonzalo Vera-Fajardo Belinchón jn.
Ordezkarria: Begoña López Errasti and.

Bokala: M^a Cruz Santamaría Martín and.
Ordezkarria: Ana Mahave Olarte and.

Bokala: Imanol Zubizarreta Artetxe jn.
Ordezkarria: Manuel Ríos López jn.

Idazkarria. Arantza Martínez de Lagrán Larrauri and.

Hirugarren.- Ondotik jaso ditugun Deialdiaren oinarri-arauak onartu, HKEEren iragarki oholean argitaratu eta bakoitzari jakinaraztea xedatu:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Oinarriak, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Lizentziatutako Auditoreen eta Zuzenbidean lizentziatutako Letratuen lan poltsak osatzeko hautaketa prozesuaren deialdia arautuko dutenak

1.- Deialdiaren xedea:

Deialdi honen helburua da lehiaketa bidez ondotik zehaztuko diren bi lan poltsa osatzeko izangaiak hautatzea, HKEEn aldi bateko izaeradun zerbitzuak betetzeko:

Lan poltsa bakoitzak zehaztuko du, aldi baterako uneoro beharrezko diren bitarteko funtzionario edo lan-kontratupeko langile bitartez lanpostuak betetzeko deituko diren hautatuen lehentasun-hurrenkera zein izango den.

2.- Izangaien betebeharrak:

Hautatzeko prozedura honetan parte hartzeko betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Espainiako herritartasunaren jabe izatea, edota EBko Estatu kideren batena, edota EBk egindako Nazioarteko Itunen indarrez –Espainiak izenpetutakoak- langileen joan-etorri askea ezargarria den Estatu haietakoa, EBren Itunean zehaztutako hitzetan.

b) 18 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez izatea.

c) Dagozkion eginkizunak egoki betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

d) Diziplina espedientearen bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik berezita ez egotea, ezta eginkizun publikoetan aritzeko ezgaiturik egotea ere.

e) Ezintasuna edo bateraezintasuna ekarriko lukeen inolako legezko kausaren barruan ez egotea, 53/1984 Legean eta Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 589/1985 E.D.an aurreikusitakoaren arabera. Honek ez die kalterik eragingo, legezko arau horretan aipatutako aukerabiderako eskubidea erabiltzeko bateraezintasuna duen kargu publiko edo iharduera pribaturen batean ari direnei.

f) Auditoreen lan poltsaren atal izateko Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziatura tituluaren jabe izatea edota hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea, eta Zuzenbidean Lizentziatu tituluaren jabe izatea Letratuen lan poltsaren atal izateko..

Lan poltsaren atal izateko beharrezko betekizuna izango da HKEEn karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario modura plazak betetzeko, 1995etik aurrera oposizio atala duen deialdiaren batean esku hartu izatea eta bertan, gutxienez azterketaren bat gainditu izatea.

3.- Baldintzak betetzea eta ofizioz izapidetzea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

a).- 2005eko Enplegurako Eskaintza Publikoaren deialdiko 9.4 oinarri-arauan, Idazkaritzaren oroitidazkian eta deialdi honen oinarri-arauak onetsi dituen Lehendakariaren Ebazpenean finkatutakoari jarraiki, MEREZIMENDUEN LEHIAKETA bideratuko da; bertan esku hartu ahal izango dute 1995eko urtetik aurrera karrerako edo bitarteko funtzionario modura HKEEn lanpostuak betetzeko oposizio atalean deialdiren bat gainditu duten izangaiek, edo horietakoren batean azterketaren bat gainditu duten haiek.

b).- Izangaiek betebeharrak guztiak bete beharko dituzte banan-banan, oinarri arauak onesten dituen Ebazpenaren datan.

4.- Esku ez hartzeko berariazko ezetza:

4.1.- Prozesuan esku hartu nahi EZ dutenek, 10 laneguneko epea izango dute hori adieraziz idatzi bat aurkezteko.

5.- Izangaien onarpena:

5.1.- Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondotik, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari and. t. gorenak izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko du, HKEEko Iragarki Ohol Ofizialean argitaratuko den Erabakiaren bitartez.

5.2.- Behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera, interesatuek hamar eguneko epea izango dute egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak HKEEko lehendakari and. t. gorenaren ebazpen bitartez erabakiko dira. Erabaki hori banan-banan jakinaraziko zaie izangaiei.

5.3.- Erreklamazioetarako epea igarota, izangai onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda onetsi eta HKEEko Iragarki Ohol Ofizialean argitaratuko da.

6.- Epaimahai kalifikatzailea:

6.1.- Epaimahai kalifikatzailea deialdi honen III Eraskinean zehazten den moduan osatuko da.

6.2.- Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztiendako Administrazio Ihardunbidearen 30/1992 Legearen 28 eta 29. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak suertatzen direnean, mahaikideek uko egin beharko diote parte hartzeari, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari and. t. gorenari jakinaraziz, eta izangaiek ere errefusatu egin ahalko dituzte.

6.3.- Mahaikide guztiak hitzarekin nahiz botoarekin ihardungo dute, idazkariak izan ezik, hark ez baitu botorik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako guztien botoen gehiengoarekin hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du eta hura bertan ez balego, mahaikiderik zaharrenarenak.

6.4.- Epaimahaia ezin eratuko da, ezta ihardun ere, haren kideetarik erdiak bertan ez badaude.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

7.- Hautatzeko prozedura:

7.1.- Izangaien hautaketa lehiaketa sistema bitartez gauzatuko da, I eta II eranskinean izendatutako ebaluazioaren arabera.

7.2.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea:

a).- HKEEren deialdiren batean hizkuntza eskakizunen bat egiaztatu dutenek, Euskal administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren ezarpenerako indarreko arauetan aurreikusitakoaren arabera, eta eskabidearekin batera agiri egiaztagarria aurkeztu duten haiek, ez dute berriz aurkeztu behar izango.

b).- Egiaztatutakoaz goragoko hizkuntza eskakizunen bat gainditu duten haiek, gainditu izanaren dokumentazio egiaztagarria aurkeztu beharko dute Ebazpen honen banakako jakinarazpena egiten denetik aurrera kontatuta 10 eguneko epean.

c).- Hizkuntz-eskakizunak egiaztatzeari dagokionez:

b.1.- 3. hizkuntz-eskakizunaren baliokide da, Euskararen Gaitasun Agiria eta baliokide diren egiaztagiri nahiz diplomak eta irakaskuntza alorreko 2. hizkuntz-eskakizuna.

b.2.- 2. hizkuntz-eskakizunaren baliokide da, Hizkuntz-eskola ofizialeko euskararen laugarren maila gainditu izana eta irakaskuntza alorreko 1. hizkuntz-eskakizuna.

8.- Hautatuen zerrenda:

8.1.- 1. lehentasuneko lan poltsa, 2. lehentasuneko poltsari nagusituko zaio. Horietako bakoitzean guztizko puntuazioa lehiaketan lortzen diren puntuazioak batuta eskuratuko da. Guztizko puntuaketak erabakiko du lan poltsen sailkapen hurrenkera.

8.2.- Puntuazioen artean berdinketarik gertatuz gero, esperientziaren atalean puntuazio altuen eskuratu duen izangaiaren alde egingo da.

8.3.- Adierazi den bezala sailkapen hurrenkera erabaki ondoren, Epaimahaiak izangai hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du HKEEko Iragarki Ohol Ofizialean, puntuazio hurrenkerari jarraiki. Hautatuen behin-behineko zerrenda hori argitaratu eta biharamunetik aurrera, interesatuei hamar eguneko epea irekiko zaie bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Erreklamazioa aurkezteko epea bukatu eta aurkezten direnak, hala egiten bada, ebatzi ondoren, Epaimahaiak izangai hautatuen behin-betiko zerrenda argitaratuko du eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari andre gorenari igorriko dio.

HKEEk lan poltsek indarrean dirauten aldian eta egoki irizitako unean, dagokion unean ezartzen den prozeduraren arabera, lan poltsa hauek erabili ahal izango ditu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

9.- Gorabeherak:

Epaimahai kalifikatzaileak sortzen diren zalantzak ebatzi eta beharrezko erabakiak hartu ahalko ditu, oinarri hauek aurreikusten ez duten guztian hautaketa prozesuak behar den bidetik aurrera egin dezan.

Deialdi honi, beraren oinarriei eta horietan oinarritzen diren administrazio egintza guztiei aurka egin ahalko zaie Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztiendako Administrazio Ihardunbidearen 30/1992 Legean eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legean agindutako epeetan eta moduan.

10.- Lan poltsen funtzionamenduari buruzko arauak:

10.1.- HKEEko Idazkaritza Nagusiak aldi baterako lanposturen bat betetzea erabakitzen duenean, hautatuak prest dauden kontsultatuko du, interesatuak jasoko duela ziurtatzen dion edozein bide erabilita. Lehentasun hurrenkerari jarraiki, kontratazio eskaintza onartzen duen lehenbiziko izangaia kontratuko da.

10.2.- Aurreko puntuan adierazi bezala, kontsulta egiten denetik aurrera hiru laneguneko epea izango dute izangaiek prest dauden baieztatzeko edo bestela dei horri uko egiten diotela jakinarazteko. Epe horren barruan berariaz eta idatziz erantzuten ez dutenak, automatikoki kanporatuko dira lan poltsatik.

10.3.- Kontratua bukatu eta gero, kontratatu ohia aurreragoko kontratazioetan ere hartuko da kontuan, hasierako hurrenkerari eutsirik.

10.4- Azken kontratazioa aurreko hilabetean burutu denean, ez da beharrezkoa HKEEko Idazkaritza Nagusiak hemen agindutako izapide guztiak betetzea -poltsaren hasieratik deitzea-. Kasu horretan, azken kontratuaren tokitik egingo dira deialdiak.

Era berean, kontratatueteriko batek zerbitzuak emateari utzi zionetik hilabete baino gehiago igaro ez bada eta beste kontratazio baten beharra badago, HKEEK zuzenean kontratatu ahalko du kontratatu ohia.

Vitoria/Gasteiz, 2006ko uztailaren 26a

Izp.: M^a Asunción Macho Berroya
HKEEren Lehendakaria



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III ERANSKINA

Auditoreen Lan poltsaren Epaimahaiaren osaera

Lehendakaria: HKEEren Kontseilari bat

Idazkaria: HKEEren funtzionario bat

1 Bokala: HKEEren Auditore plaza duen funtzionario bat.

2 Bokala: Langileria ordezkaturako duen HKEEren funtzionario bat.

Letratuen Lan poltsaren Epaimahaiaren osaera

Lehendakaria: HKEEren Kontseilari bat

Idazkaria: HKEEren funtzionario bat

1 Bokala: HKEEren Letratu plaza duen funtzionario bat.

2 Bokala: Langileria ordezkaturako duen HKEEren funtzionario bat.